



Argitaratze-data: 2019/05/24

## ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2019 Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO

### GITARRA ELEKTRIKOA ESPEZIALITATEAREN PROBA PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA – OPOSIZIO-FASEA

Deialdiaren VII. ERANSKINEAN proba praktikoari buruz esaten denari erreparatuta («Kontzertu-programa bat aurkeztu behar da, izangaiak hautatzen duena, non musika-tresnaren literaturaren estilo nagusiak jorratzen dituzten lau obra egon beharko diren, guztiak argitaratuak»), eta kontuan hartuta gitarra elektronikoaren errepertorioak askotariko estiloak dituela, honako hauek onartuko dira proba praktikoan:

- Musika modernoaren hainbat estilo (rocka, countrya, funka, latinoa, folka...) eta jazza, edozein aldaeratan (ragtimea, swinga, gypsy, bluesa, bebopa, coola, modala, bossa nova, fusioa...)

Jazzaren obra estandarretan, «real book» edo «gidoi-formatua» motakoetan, oposiziogileak zehaztu den estilora egokitu ahalko du interpretazioa, eta moldaketa hori nola egiten duen baloratuko da. Bada, horretarako, erritmo/melodia aldaketak, inprobisazioak, bestelako harmonizazioak, *chord melody*-a... sartu beharko dira, oposiziogileak estilo horretan duen ezagutza-maila ebaluatzeko xedez.

Horrelakoetan, oposiziogileak «real book» edo «gidoi-formatua» motako partitura aurkeztuko du, eta hor oinarrituko du bere interpretazioa. Jazzaren obra edo bakarkako osoa egiten badu, proban joko duen transkribapen espezifikoaren partitura aurkeztu beharko du.

Oposiziogile bakoitzak bere soinu-ekipoa ekarri beharko du (anplifikadorea, pedalak, kableak...), nahi duen soinu-ezaugarriekin egin ahal izan dezan proba.

Proba praktikoa egiteko akonpainamendua behar badu, oposiziogile bakoitza arduratuko da bere akonpainamendua(k) bilatzeaz. Aurretik grabatutako oinarria erabili nahi badu, berak ekarri beharko ditu ondo entzuteko behar diren bitarteko tekniko guztiak (mugikorra, ordenagailu eramangarria, amplifikadorea, kableak...).